

Babes ekonomikoa baino zerbait gehiago

Bizitza duin bat izateko baldintzarik gabeko errenta herritar orori ematea posible dela frogatu du Jordi Arcarons Bartzelonako Unibertsitateko ekonomia aplikatuko katedradunak Katalunian eta Gipuzkoan egin dituen ikerketa banatan. Halako diru-sarrerak, herritarrentzako berme ekonomikoa izateaz gain, jendarteko desoreka ugari arintzeko balioko luke.

| URKO APAOLAZA AVILA |



GERTRAUD-MAGDALENA / FLICKR (CC)

Oinarrizko errenta unibertsala herritar ororentzako gutxieneko diru-sarrera da, eta egungo prestazio baldintzatuen kontrara, lana egitearekin bateragarria. PFEZ zergaren erreforma eginez, populazio osoaren existentzia materiala bermatuko litzateke.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK otsailean oinarrizko errentaz egindako simposiumean eman zuten argitaratu Jordi Arcarons katedradunaren ikerketa, foru erakundearen enkarguz egina. Gipuzkoako 450.000 errenta aitortzen aztertuta, ondorioztatutako dute adineko herritar orok –lan egin hala ez– hilean 658,5 euro jasotzea bideragarria dela. Adingabeak 131,7 euro jasoko litzateke.

Arcaronsen kalkulua PFEZ zergan %40,52ko tasa bakarria ezarrita

daude eginak. Desberdintasun ekonomikoak gaur egungo PFEZ progresiboarenak baino 2,5 bider gutxiago lirateke eta gipuzkoarren %75ak bere egoera ekonomikoa hobetuta ikusiko luke.

Gipuzkoan oinarrizko errenta unibertsala finantzatzeko 4.857 milioi euro behar dira: 1.518 milioi egun herritarrek jasotzen dituzten prestazioetatik etorriko lirateke eta gainerakoa zerga erreformarekin. Aitzitik, Ander Rodriguez Gizarte

Politikarako diputatuak onartu du zaila izango dela errenta ezartzeko kontsentsu politikoak lortzea.

Jardunaldietan, azterketa ekonomikoa egiteaz gain, generoaren eta osasun publikoaren inguruko mahai-inguru bana izan ziren. Ondorengo orrietan, bertan parte hartu zuten adituen iritzia jaso dugu; errenta unibertsalaren onura soziala noraino irits litekeen erakusten dute adibideok. ■

